



AISIALDIA ETA ARRATSALDEKO JARDUERAK 2022

Bai aisialdian, bai arratsaldeko jardueretan COVID-19-aren aurrean hartu beharreko funtsezko neurriak jasotzen dituen informazio-ohola ikusgai izanen da.

Funtsezkoa izanen da arratsaldeko jarduera guztietan gutxienez irakasle batek taldea laguntzea.

LUDOTEKA eta AISIALDIA

Astearte, asteazken eta ostegunetan, **Izabako Udaletxeko lehen solairuan**, 15:30etatik 18:00etara LUDOTEKA serbitzua eskuragarri izanen dute. Espazio honetan, begirale baten ardurapean, mahai jolas desberdinak erabili ahal izanen dituzte eta alokairuan kirol material desberdina hartu (badminton, baloiak, erraketak, palak,...). Bestalde, bai **Erminea Frontoian**, bai **Anfiteatroan**, begirale bana egonen da kirol espazioa eta alokairuan eskeiniko den kirol materiala (bádminton, baloiak, erraketa, palak,...) kudeatzeko.

Normalean ikasleek aisialdia probesten dute litxarkeri eta oroigarriak erosteko. Dendetako aforoa errespetatuko da, jende pilaketak ekiditeko, eta eski-txandak kontuan hartuz ordutegi bat ezarriko da.

ESKI TXANDA	EROSKETA ORDUTEGIA
Lehen txanda	16:00 – 17:00
Bigarren txanda eta Asolaze	17:00 – 18:00

ARRATSALDEKO JARDUERAK

Eski jardueraren osagarri gisa Kanpainatik jarduera desberdinak eskeiniko dira **ASTELEHEN, ASTEARTE, ASTEAZKEN eta OSTEGUN**-etarako.

ZINEMA

Asteleheneko ordutegia:

19:00-etarako anfiteatroan egon beharko duzue eta begirale batek partehartzaileak jarduera eginen den Izabako Zinemara lagunduko ditu.

Astearte, asteazken eta ostegunetako ordutegia:

17:45-tarako anfiteatroan egon beharko duzue eta begirale batek partehartzaileak jarduera eginen den Izabako Zinemara lagunduko ditu.

Jarduera hau Izabako Zineman burutuko da eta Labrit Multimediak sortutako ikusentzunezko bat aitzaki, Iñaki de Miguel-en antzerkiak jarduera osatuko du.

Ikusentzunezkoan lau gai landuko dira nagusiki: ingurugiroaren zantza, enarak edo espartingileak, landa eremuan bizitzearen balioa eta, zeharka, teknologia berrien gehiegizko erabilera. Iñaki de Miguel-en antzerki-lanak gai guztiak uztartuko ditu eta ikasleen partehartzeari esker, hainbat balore haiengana iristea lortuko du.

HERRI KIROLAK eta MAKILEKIN JOLASAK

Asteleheneko ordutegia:

19:00-etarako anfiteatroan egon beharko duzue eta begirale batek partehartzaileak jarduera egingen den Izabako Zinemara lagunduko ditu.

Astearte, asteazken eta ostegunetako ordutegia:

18:00-etarako anfiteatroan egon beharko duzue eta begirale batek partehartzaileak jarduera egingen den Izabako Zinemara lagunduko ditu.

Bi jarduera hauek modu osagarrian garatuko dira, talde bat HERRI KIROLAK jarduerarekin hasiko da eta beste talde bat MAKILEKIN JOLASAK jarduerarekin. Bi jarduerak amaitu ondoren, jarduerak trukatuko dituzte.

Herri kirolak

HERRI KIROLAK jarduera froga konbinatu batean parte hartzean datza: lokotxak, harri-jasotzea, txingak, zaku-lasterketa, lasto-jaurtiketa, burduntzia, gizon-froga eta soka-tira.

Lehenik eta behin, froga guztiak ondo azalduko dira eta ondoren, talde partehartzaile bakoitza bi talde txikitari banatuko da; hauek izango dira haien artean lehiatuko dutenak froga desberdinetan parte hartuz. Froga txanda desberdinak egingen dira eta talde txiki bakoitzeko partehartzaileek froga desberdinetan parte hartuko dute haien artean dibertigarri eta entretenigarriagoa izan dadin.

Frogak honako hauek izanen dira:

1. Arkatza botilan sartu
2. Lokotxak jarri eta berriz ere saskian jaso
3. Hankak elkarri lotuta ibilbide bat saltoka burutu
4. Esku bakoitzean txinga bana hartu eta ibilbide bat burutu
5. Gizon-proba
6. Harri jasotze proba
7. Ibilbide jakin bat lasterka burutu zakuak sorbaldan eramanez
8. Koloretako uztaien ibilbidea egin kolore jakin bateko uztaietan oinak sartu gabe
9. Zaku jaurtiketa:
10. Burduntzia

Soka-tira txanda batzuekin amaituko da.

Ikasleek arropa eta oinetako erosoak jantzi beharko dituzte.

Makilekin jolasak

MAKILEKIN JOLASAK jardueran ipar martxako makilak erabiliko dira eta jolas desberdinen bitartez, iraupen edo ipar eski klasiko modalitatearen antzeko mugimenduak dituen, Nordic Walkin (Nordic ALFA)-areb oinarrizko teknika erakutsiko da,

Jolasak: NW esku zabalekin, norbait agurtu, geldirik egonda aurrera eta atzera balantza egin, aldi berean bi makilekin ibili, makil bakarrarekin ibili, gora zilborra, erremolkean ibili, errobota askatu, tren, oinaren lan aktiboa, bikoteka martxa sinkronizatua, oztopoekin ibilbidea, makilen lapurreta, slalom lasterketa, luzera saltua, posizio aldaketa, errelebo lasterketa, biathlon erreleboak, ibilbide zirkularra, oreka,...

NATUR INTERPRETAZIO ZENTROKO JARDUERA eta SAN JUAN BASELIZARA IBILBIDE GIDATUA

Asteleheneren, astearte, asteazken eta ostegunetako ordutegia:

18:15etarako Izaba Hotelean egon beharko duzue Erronkarira eramango zaituzten autobusa hartzeko. Natur Interpretazio Zentro-tik hurbil jeitsiko zarete eta bertan bi jardueretako begiraleak zain izanen dituzue. Bi jarduerak amaitu ondoren autobusa Erronkaritik 20:30etan abiatuko da.

Bi jarduera hauek modu osagarrian garatuko dira, talde bat NATUR INTERPRETAZIO ZENTROKO jarduerarekin hasiko da eta beste talde bat SAN JUAN IBILBIDE GIDATUA jarduerarekin. Bi jarduerak amaitu eta erabilitako espazio eta materialak desinfektatu ondoren, beti begirale arduradunek lagunduta, hurrengo jarduera burutuko dute.

Natur Interpretazio Zentroa

Jarduera Erronkariko Natur Interpretazio Zentroan burutuko da. Lehenik taldea bigarren solairura igoko da eta PowerPoint baten laguntzaz begi bistaz gaueko zeruan ikus dezakegunaz, argi kutsaduraz, haren ondorioez eta gutxitzeko gure eskuetan dagoenaz hitz egingen da.

Ondoren, taldea bitan banatuko da eta, azpitalde bat bigarren solairuan geldituko da eta bigarren azpitaldea lehen solairura jeitsiko da. Bertan, informazio-ohol desberdinen bitartez, galdera eta erantzunetan ezkutatuta dagoen konstelazioaren izena topatu beharko dute.

San Juan Ibilbide gidatua

Taldeak autobusak utzitako lekutik abiatuta San Juan basilizara doan ibilbidea egingen du.

Ibilbidean zehar, bertako animaliak landuko dira haien irudien, oinatzen eta arrastoen bitartez. Ibilbidean zehar bertako zein kanpoko animalien irudiak kokatuko dira, baita gizakiak ingurunean uzten dituen arrasto batzuk ere (edari-lata, musuko erabilia,...). Gainera, bozgorailu baten laguntzaz, animalia desberdinen hotsak entzungo dituzte, bakoitza zein animaliarri dagokion asmatzeko.

San Juan basilizara iristerakoan, animalia batzuen oinatzak eta arrastoak erakutsiko zaizkie.

Ibilbidea hasi aurretik gaueko zerua begira dezaten eskatuko diegu eta argi-kutsaduraren eragina aipatuko dugu. Behin basilizan gaudela, berriz ere gaueko zerua begiratzea eskatuko diegu, kontura daitezen iluntasun baldintza ona duen toki batetik zein desberdintasun dagoen. Ikusten diren izar eta konstelazioak ezagutzen dituzten galdetuko diegu eta esanguratsuenak gogoratu edo ikasteko probestuko dugu.

Amaieran gizakiok ingurunean dugun eraginaren inguruan hausnartuko dute eta eragin horiek txikiagotzeko proposamenak egin.

Eguraldi txarra eginez gero, jarduera Erronkariko eskola zaharretan burutuko da. 2000 Natura Sarearekin lotutako informazio-ohol desberdinen bitartez ezkutuan dagoen hitza topatu beharko dute. Kanpoan egingen den jarduerarako prestatutako hainbat baliabide erabiliko dira (hotsak, oinatzak, arrastoak,...).

Ikasleek arropa eta oinetako erosoak jantzi beharko dituzte eta ESKUARGIA eraman.

JULIAN GAYARRE MUSEOA ETA MAUSOLEOA

Asteleheneren, astearte, asteazken eta ostegunetako ordutegia:

18:15etarako Izaba Hotelean egon beharko duzue Erronkarira eramango zaituzten autobusa hartzeko. Udaletxeko aterpe parean jeitsiko zarete eta bertan bi jardueretako begiraleak zain izanen dituzue. Bi jarduerak amaitu ondoren autobusa Erronkaritik 20:30etan abiatuko da.

Bi jarduera hauek modu osagarrian garatuko dira, talde bat JULIAN GAYARRE MUSEOko jarduerarekin hasiko da eta beste talde bat MAUSOLEO jarduerarekin. Bi jarduerak amaitu eta erabilitako espazioa aireztatu ondoren, beti begirale arduradunek lagunduta, hurrengo jarduera burutuko dute.

Julian Gayarre Museoa

Jarduera Erronkariko Julian Gayarre Museo-etxean burutuko da. Museoko espazioa mugatua denez, bertako arauak irakurri ondoren taldea bi talde txikitan banatuko da eta talde bakoitzak bi jarduera desberdin burutuko ditu, beti begireleez lagunduta.

LEHEN JARDUERA: eguraldiak laguntzen badu kalean egingen da. Taldeari pista-joko bat emanen zaio eta museoan hasi eta bukatuko den ibilbide bat jarraituz, eta beti begiraleak lagunduta, Julian Gayarre tenorearekin lotutako hitz bat aurkitu beharko dute. Bukaeran labur, aurkitutako informazioa azalduko zaie.

Euria eginez gero edo kaleak baldintza txarretan egonez gero, bigarren solairuan Erronkariko etxeetan erabiltzen ziren antzinako tresna eta haien erabilerarekin lotutako jarduera bat egingen da.

BIGARREN JARDUERA: taldeari JULIAN GAYARRE EZAGUTU ginkana emanen zaio. Ginkana honek hamaika galdera ditu eta erantzun egokiekin Julian Gayarrerekin lotutako hitz bat lortuko dute. Galderen erantzunak topatzeko museoko hiru solairuak ikusi beharko dituzte.

Scape-room

Jarduera honen abiapuntua Erronkariko udaletxeko arkupeeak izanen dira. Bertatik, oinez Erronkariko eskola zaharretara hurbilduko dira. Bertan, taldea bitan banatuko da eta azpitalde bakoitzak ikasgela batean Gayarre-rekin lotutako scape-room bat aurkituko du. Scape room honen helburua mausoleoaren puzlea osatzea izanen da. Behin lau piezak lortu ondoren, mausoleoaren historia azalduko zaie eta irudi esanguratsuenak erakutsiko zaizkie. (Tenorea hil ondoren Mariano Benlliure eskultore valentziarrak eraikitako mausoleoa Erronkariko hilerrian dago, erdigunetik 800 metrotara gutxi gora behera).

Ikasleek arropa eta oinetako erosoak jantzi beharko dituzte eta ESKUARGIA eraman.